

IZARRAK AMETS

Aitziber Agirre

Zornotza, 14 urte

Horrela kontatzen zien aitona Patxik bere bilobei neguko arrats hotzetan:

“Duela asko, bazen Frantziako itsasertzeko herri txiki batean, izarrak aztertzea amets zuen neska koskor bat. Neskatxa honek Julie zuen izena, hamabost urte beteak zituen eta bere burua nagusitzat zuen jadanik.

Julieren aita tematuta zegoen bere alabak txepelkeria haietan pentsatzeak etxerako kaltea besterik ez zuela ekarriko esaten. Honekin, astronomiako tresnak txit garestiak zirela esan nahi zuen. Juliek, ordea, ez zion jaramonik egiten, bere ustatan aitak hori esatearen arrazoia amari laguntzeko etxean gelditzea baitzen.

Gure neska, familia zabal bateko alaba zen. Zazpi neba-arreba, gurasoak eta aitona bizi ziren etxean, baina guzti hauen artean Julie ulertzen zuen bakarra aitona Byron zen. Honen ustez, izarrek gauero mezu ezberdina bidaltzen zuten eta mezu haietako bakoitza, zeruan zegoen jakinduriako liburu batean gordeta zegoen. Byronen ingurukoen ustetan aitona xaharrak guzti hura bere bilobatxoak kontsolatzeko esaten zuen, baina neskak bazekien aitonak zioena sentitu egiten zuela.

Azaroko hilabete hotz batean, aitona oso gaixo jarri zen. Aste bete zeraman ohetik altxa gabe eta

bere ordua heltzen zihoala sentitu zuenean, Julie deitu zuen berarengana:

– Julie maitea, ni hiltzen naizenean izarrak begiratzen eta estimatzen jarraitzea nahiko nuke. Eta gogora ezazu honako hau: gauren baten ohikoa ez den izarririk aurkitzen baduzu, arimaren bati zeruko atea zabaldu dizkioten seinale da.

Haiek izan ziren prezeski aitona Byronen azken hitzak, eta hura izan zen Juliek izarrenganako zuen grinaren sua indartuko zuen egurra.

Aitonaren heriotzaren geroztiko astea latza egin zitzaion gure neskari. Ordutik aurrera izarrak laguntzarik gabe begiratu beharko zituela pentsatze hutsak negargura ematen zion. Momenturen batean pentsatu izan zuen astroen mundua alde batera uztea, baina aitonaren azken hitz jakintsuak oroitzen zituenean, izarrenganako irrika handia-gotu egin zitzaion.

Aitonarena barneratu zuenean, Julie, lan bila hasi zen. Garai haietan gaur egun bezala, lana aurkitzeko arazo asko zegoen. Hilabeteren buruan, etengabe bilatzen ibili ondoren, okindegi batean aurkitu zuen zeregina. Nagusia, gizon zeken eta zakarra zen, egunean libera bakarria ordaintzen ziona.

Juliek bazeramatzan bost bat urte lanean teleskopioa erosteko dirua batu zuenerako. Harekin bai ikusten zirela izarrak! Han zeuden ipar izarra, hartz handia, hartz txikia... eta planetak. Planetak ere aztertzen baizituen gure pertsonaiak. Teleskopioa erosi zuenetik lau gau pasatu zituen lo egin gabe, eta harrigarriena, logurarik ez izatea

zen. Berak zioenez, izarrak ikusteak indarberritu egiten zuen.

Hilabete inguru pasatua zenean eta loerdia berreskuratu zuenean, Juliek amesgaiztoa izan zuen:

Egunero bezala lanetik itzuli eta afaldu ostean, astroak ikuskatzeari ekin zion. Teleskopioa hartu eta begiratzeko hasi zenean, hura izan zen atsekabea! Ipar izarra falta zen! Bere aitatzik zionaren arabera, ipar izarra zen ortziko garrantzitsuena eta bera gabe izarrak pixkanaka jausten joango ziren. Dena aitonak esandako eran gertatu zen: Kasiopea eta Andromeda ez zeuden eta geratzen ziren izarrak ere gutxinaka bazihoazen...

Kitto! Amets-gaiztoa amaitu zen. Juliek, aztoratuta, leihora hurbildu eta zerura begiratu zuen. Eskerrak! Han zeuden bakoitza bere lekuetan, Ingalaterrako erreginaren gazteluko soldaduak bezain tinko.

Behin, lanean ari zela, bere benetako nahiez pentsatzen jarri zen. Bazekien astronomiaz gehiago jakin gura zuela. Non ordea? Inguru haietan ez zeukaten era hartako ogibidea ikasteko lekurik. Hurbilen zegoen unibertsitatea Hamburgokoa zen eta neskaren herritik bederatzi mila kilometrotara aurkitzen zen. Nahiz eta herri bien arteko tartea oso luzea izan, dirua zen Julieren kezka nagusia...

– Ba, ikasketetarako dirulaguntza eskatzea zeukan!- esango zuen Patxiren bilobaren batek.

– Bai, baina garai haietan ez zen horrelako gauzarik egon zitekeenik ere pentsatzen. –ihardetsiko lioke Patxik. -Ea, nondik nindoan? Ah, bai!

“Esan bezala, sosen kontua zuen oztopo nagusia, Julie, familia xume bateko alaba zen eta ez zuten ikasketa garesti haiek ordaintzeko adina diru. Orduan, nola lortu dirutza hura? Denbora anitz buruari bueltak emanaz egon ondoren, beste lan bat bilatzeari ekitea erabaki zuen. Esan eta egin. Biharamunean, lantokitik irtetzerakoan, bigarren ogibidearen bila hasi zen. Baita topatu ere! Jostun baten etxean erroa berriak egiten zituen.

Alemaniarra joan ahal izan zuenerako, hiru urte pasatuak ziren. Pena sentitzen zuen hainbeste denboraz bizi izan zen herria agurtzean, baina bere aitita oroitzeak dolu guztiak baztertzeko zizkion. Hamburgora heltzeko, lehendabizi Parisera joan behar zuen autobusez eta bertatik Hamburgorako trenara hartu. •

Bidaia hasia zen. Jada ez zegoen atzera bueltarik. Parisera joan bidea ongi joan zitzaion. Zailtasunak handik Hamburgorako bidean etorri ziren. Julie, berari zegokion apardamentuan sartu zen. Berarekin batera, 35 bat urteko gizona zegoen, baina gure neska ez zion jaramon handiegirik egin, liburua irakurtzen zegoen eta. Hala ere, gizonzkoa gelaatik atera zela ohartu zen Julie. Ordu erdiren buruan neska hori gelaatik itzuli zen. Oraingoan, aurrekoan ez bezala, lagundurik zetorren, eskupeta baitzekarren besapean. Neska oso izutu zen arma luze hura ikustean eta bere bidailagunak zekarren aurpegiak ere ez zion barregura askorik eman. Gizonak, buruarekin, jaikitzeko agindu zion eta poltsa bat zabalduz, Julieri kendu-

tako dirua sartu zuen. Hau guztia zakarkeria handiz egin ostean, neska berarekin eraman zuen. Lehen klaseko bagoiruntz abiatu ziren eta hara iristerakoan, zera esan zuen lapurrak ozen-ozen:

– Jaun-andreok, adi egon zaitezte une batez! Hau lapurreta da, jar itzazue zeuen ondasunak mahai honetan utziko dudan poltsan. Eta kontuz esandakoa ez betetzearekin, neska polit honen bizia arriskuan baitago.

Bagoi hartan zeuden aberats guztiek zorrotz bete zituzten emandako aginduak. Ohoinak bere harrapakinak zakuan zituenean, Julien trenaren muturrera bideratu zuen. Bazuen gertatuko ziztaionaren susmoren bat: lapurrak trenaren atzeko aldetik botako zuen eta akabo. Agur Hamburgorako bidaia! Agur baita ere aitona Byroni egindako promesa! Atzekaldera hurreratzen zihoazen heinean, neskaren barruko harra handitzen zihoan. Iritsi ziren halako batean. Paisaje zoragarria zuten begien bistan. Horrek ez zuen Julie arduratzten, ordea. Gizonaren gorputz erdia trenaz kanpo zegoen eta gure lagunari begira esan zuen:

– Jarrai ezazu zure bidea, etorkizun handia duzulakoan nago. Eta ez kezkatu, teleskopioa apardamenduan utzi dizut. Segi iezaiozu ametsek erakusten dizuten bideari, urruti helduko zara. Agur!

Eta gizonak bere burua trenetik behera bota zuen.

Gure neskak ez zuen gertatutakoa sinesten. Nola gerta ziezaiokeen hain gauza arrotza bera legezko neskatxa apal bati? Hala ere pozik zegoen. Orain

Hamburgerako bidaia jarrai zezakeen. Bazuen fedea bere buruarengan eta bazekien diruaren laguntzaz edo gabe, ametsa gauzatuko zuela.

Trenak bere bidea segitzen zuen. Hamburgora iristeko ordu pare bat gelditzen zitzaizkien oraindik, eta Julie bere gelaxkara itzuli zen. Gizonak esan bezala teleskopioa lehengo lekuan zegoen. Besaulkian jesarri eta etorkizunaz pentsatzen hasi zen, etorkizun desberdin batez, dirua falta baitzitzaion.

Heldu ziren azkenik Julieren pentsamenduetako hiriburura. Trenetik jeitsi eta bere barnerako galdetu zuen: Zer egingo dut? Nora joango naiz? Hiri hura ezezaguna zen berarentzat eta ez zeukan lagunik. Teleskopioa bakarrik zeukan eta hartatik ezin jan... edo bai! Teleskopioa sal zezakeen, norbaitek erostea nahi bazuen, behintzat.

Tramankulua saltzeari ekin zion, beraz. Almazan haundi batzuetara joan zen galdezka:

– Teleskopio hau erosiko al zenidake? Urte pare bat besterik ez du eta egoera onean dago.

– Sentitzen dut, baina gure bezeroek ez dituzte gauza hauek erosten. Kale bi beherago joanda, bitxikerien denda bat aurkitu duzu. Galde ezazu han.

– Zure aholkua jarraituko dut. Eskerrikasko. Leku hartatik irten eta saltzailearen esanei jarraituz aldapan behera abiatu zen. Kolore biziez *BITXIKERIAK* ipintzen zuen. Itxura zikinoko denda zen, baina beste irtenbiderik ez zuenez ireki egin zuen atea. Barrura sartu zen. Kanpotik bezain zarpail zen barrutik ere. Aurrekoan bezala galdetu zuen:

– Nahi al duzue teleskopio bat?

– Zoaz beste nonbaitera limosna bila. Hemen ez gara dirua alperrik botatzeko egoten.

Eta nagusiak esan bezala alde egin zuen. Konturatu orduko, iluna, bakardea, hotza ...zetozen. Asko ibili ondoren, eraikuntza handi baten aterpean loak hartu zuen. Han ez baitzegoen haizerik. Hurrengo goizean, eguzkiak berriz ere berotzen zuenean, itxaropenezko eguna zuela aurrean auresentitu zuen, baina zoritxarrez ez zen hala izan. Teleskopioa saltzen adur txarra izan zuenez, lana aurkitzea pentsatu zuen.

Lehenengo okindegi batera joan zen, arinago ere horretan aritua zen eta. Ez zioten lanik eman, ordea. Gero, moda denda batera sartu zen, baina han ere lanik ez zutela eta kanpora bota zuten. Etsipenez beteta, azkenik, denda zahar batera sartu zen. Barnean, saltokiak adina urte zituen amonaxoa zegoen apalak antolatzen. Atearen zarata entzun bezain laster biratu egin zen, leku bakarti hartara norbait sartzea oso arraroa baitzen. Juliek hitzegin zuen lehenengo:

– Egunon. Lanik ba al duzu ni bezalako neska batentzat? Hiriko saltoki guztietan egon naiz, baina, itxura denez, herrialde honetan lan eskazia handia duzue.

– Egunon, bai. Neuk ere besteen erantzun bera eman beharko dizut, ikusten duzunez hiriaren alde honetan ez dago mugimentu handiegirik... Baina neskaren aurpegi tristea ikusterakoan hitzegiten jarraitu zuen.– Lana ez. Nahi izanez gero, gosaria emango dizut, hitzegiteko gogoia dut eta.

Pozik onartu zuen Juliek proposamena, ezen baziren 24 ordu ezer jan gabe zegoela. Amonak bere bizitzaren berri eman zion eta neskak bere burua aurkeztu zuen. Solasaldi ederra izan zuten. Tartean Juliek txokolatezko pastel gozoa egiten erakutsi zion. Aldegiteko ordua iritsi zen eta pena handiarekin joan zen handik neska. Berriz ere lehengo egoera berean zegoen. Beno, orain sabela bete zuen.

Egun guztian ez zuen bere ahaleginaren fruiturik jaso eta halako batean gaua iritsi zen. Zerura begiratu eta hura zen izarratua zegoena! Inoiz baino dirdiratsua go zuen. Teleskopioa zorrotik atera eta goruntz begiratu zuen. Zer zen ikusten zuena? Ipar izarraren eskuinaldean ordurarte sekula ikusi ez zuen izar bat zegoen. Ortze guztiko dirdikariena zela iruditu zitzaion gure neskari. Momentuan, aitaxi Byronek esandakoa gogoratu zuen: gauren batean ohikoa ez den izar bat... Bera zen. Aitonari zeruko ateak zabaldu zizkioten! Handik aurrera egunero ikusi ahal izango zuen beste astroekin batera. Hura zen poza!

Gaua hozten ari zen. Julie, ordea, ez zen ohartu. Hala, aulki batean etzanez loak hartu zuen. Hura izan zen aitona hil zitzaionetik amets gozoak izan zituen loaldi bakarra. Biharamunean, garbitzaile batek, neska izoztuta, hilik, aurkitu zuen, ezpaintedan irrifar xamur batekin.”

Istoria amaitzean hurrek jarriko zuten aurpegi penagarria ikusirik esango zuen aitona Patxik:

– Bukaera tristea duen kontakizun ederra, e,

umeok? Diotenez, Ipar Izarraren alboan magia bidez agertu zen astro hari, Julie hil zen egunetik aurrera argitasuna jaitsi egin zitzaion. Baina, bere ondoan izartxo ttipi bat azaldu zenean, berriz ere lehenengo eguneko bristada berreskuratu zuen. Zergatik ote?

AMAIERA